


# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2020-11-13 OSTIRALA / 751. ZENBAKIA / 2. AROA  
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



## Irurtzunek sahesbidea izanen du

Nafarroako Gobernuak onespena eman dio herriaren aspaldiko eskaerari / 6



**Belarriprestak Euskalduan izena ematera animatu dituzte bere lana ezinbestekoa delako / 8**

**Mikel Reparazek 'Las grietas de América' aurkeztuko du Arbizun eta Etxarri Aranatzen / 2-4**

**Ezkurdiak eta Altunak Buruz Buruko Finalerdietarako txartela dute jokoan / 12**

**Larunbatean lau urte beteko dira Altsasu Auziagatik lehenengo atxiloketak izan zirela / 7**

**Victoria Alvarez Musettik bere lehenengo antzezlanari idatzi du: 'Todo está allí' / 14**

Sakanaoptika  
optometria - audioloxia - kontaktotopia

**2X1**  
BETAURREKOETAN  
**%70**  
BIGARREN AUDIFONOAN

Intxostia zeharbidea 10 (Altsasu)  
948 563 124 | [www.optikasakana.com](http://www.optikasakana.com)



# "Arrazakeria da Amerikako Estatu Batuen bekatu originala"

**MIKEL REPARAZ EXTRAMIANA** KAZETARIA

Kazetari arbizuarrak 'Las grietas de América' liburua aurkeztuko du larunbatean Arbizun eta asteazkenean Etxarri Aranatzen. Estatu Batuak ulertzeko ezinbesteko liburua da

**Maidar Betelu Ganboa** ARBIZU

ETBko nazioarteko arduradun Mikel Reparazen *Las grietas de América* liburua irailaren 13an publikatu zen (Peninsula). Liburua ezinbestekoa da Amerikako Estatu Batuen (AEB) gizarte zatikatuaren arrazoietan sakontzeko eta berriki burutu diren hauteskundeetan jokoan zegoena ulertzeko. Guztia, irakurtzeko arina den erreportaje literarioan.

**HAUTESKUNDEEZ**

**2013tik 2018ra EITBko AEBko korrespontsala izan zinen; egun batzutan zure aurreko lana berreskuratzen zenuen, Joe Bidenen kanpaina jarraitu baituzu. Zer moduz?**

Hauteskunde gaua luzatu zitzaigun, lauzpabost egun egon ginen emaitzen zain. Gogorra eta luzea izan da, baina aitoritzen dut oso interesgarria izan dela eta faltan botatzen nuela horrelako lana egitea. Gustura ibili gara.

**Biden eta Trumpen arteko hauteskundeak historikoak izan direla azpimarratzen da. Aurrekoekin alderatuta zein izan da desberdintasunik nabarmenena, Trumpen jarrera agian?**

Zalantzarik gabe. Trumpen hauteskunde prozesuaren zilegitasuna zalantzan jarri du iruzur salaketa horiek egin dituenean eta Bidenen garaipena onartu ez duenean. AEBetan hori inoiz ez da gertatu. Bestalde, aurrekaririk gabeko beste elementu bat pandemia izan da. Pandemiak erabat baldintzatu ditu hauteskundeak, posta bidezko botoa eta hauteskundeetako parte hartzea ikaragarria izan delako, orain arteko altuena. Hauteskunde bereziak izaten ari dira, Trumpen oraindik ez duelako emaitza onartu. Ikusiko da hau guztia nola bukatzen den.

**Demokratik bueltan dira. Joe Biden Obamaren presidenteordea izan zen. Kamala Harrisek AEBetako kultur aniztasuna irudikatzen du. Historikoa da emakume bat lehenengo aldiz presidenteordea izatea.**

**"ESTATU BATUETAKO GIZARTEA ERABAT ZATITUTA DAGO; EZ DU KONPONBIDE ERRAZIK"**

Kamala Harrisen hautaketa historikoa da, aniztasuna irudikatzen duelako eta lehen aldiz emakume bat postu horretara iritsi delako. Are gehiago esanen nuke: Joe Bidenek 77 urte dauzka, esana du ez dela bigarren agintaldi batera aurkeztuko, eta pentsatzen duela Kamala Harris izango dela hurrengo hautagaia. Horrek ere egiten ditu berezi hauteskunde hauek. Delawaren garaipena ospatu zutenean, Kamala Harrisek protagonismo handia izan zuen eta nabarmendu zuen AEBak herrialde anitza dela, etorkinek egindakoa, eta bera dela lehen emakumea postu horretan baina ez dela azkena izanen.

**Joe Bidenek batasunaren aldeko aldarria egin zuen Delawaren. "Estatu Batuak sendatzeko" garaia dela adierazi zuen; ez zituela estatu gorriak edo urdinak ikusten, "Estatu Batuak ikusten zituela" nabarmendu zuen, eta "denendako gobernatuko duela" ziurtatu zuen. Hari entzuten zure liburua zetorkidan burura, *Las grietas de América*-n AEBetako gizarte erdibituta dagoela azaltzen baituzu, AEBak arrazakeriaren gainean eraikita**



Mikel Reparaz New Yorken 'Las grietas de América' liburuarekin. UTZITAKOIA

**dagoela, eta biolentzia AEBen oinarrian dagoela.**

AEBetako gizartean dagoen arazo larriena hori da, arrakala horiek. Gizarte erabat zatituta eta polarizatuta dago; zatiketa horrek ez du konponbide errazik baina Joe Bidenek hori agerrazi nahi izan zuen, bera prest dagoela herrialde batzeko. Kontua da zatiketa erabatekoa dela; Bidenek ia 75 milioi boto jaso ditu, baina Trumpen ia 71 milioi, eta hori ez da gutxietsi behar. Egoera oso kezagarria da, Trumpen zatiketaren suari gasolina botatzen diolako esanez kalera ateratu behar dela, hau bidegabekeria bat dela, hauteskundeak berak irabazi dituela baina garaipen hori iruzurrak kendu egin

diola. Eta hori jende askok sinisten du. Trumpen jarraitzaileek ez dute oso erraz amore emanen, eta iruditzen zait Bidenek ez duela batere erraza herrialdea batu eta denek bat egiteko. Oraindik erronka handia da hori AEBetan. Liburuan azaltzen dudana bezala, honek sustrai oso sakona du; atetik datorren kontua da. Erreforma handiak egin behar dira arrazakeriarekin amaitu eta gatazka konpontzeko, hau gatazka politiko bat delako.

**AEB-ETAKO ARRAKALAK**  
Liburuan, bi gertakizunetan oinarritzen zara gizartearen bi alde horiek irudikatzen. 2015ean Baltimoren Freddy Gray izeneko mutil afroamerikarra hil zuen polizia



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





eta horrek izugarritzko matxinada sortu zuen. Bestetik, Trump boterean zela, 2017an Charlottesvilleen James Alex Field neonaziak Heather Heyer antiarrazista autoarekin harrapatu eta hil zuen talde neonaziak eta arrazistak protesta egitera atera zirenean. Horrelako beste hamaika gertakizun aipatzen dituzu, tartean maiatzean Chauvin poliziak George Floyd ito eta hil zueneko.

AEBetan supremazia txuriak botere ikaragarria du eta izan du hasieratik. Afroamerikarrek eta gutxiengoek –beltzek, latinoek, indigenek...– aurrerapausoak eman dituzte eta konkista sozialak ere izan dira: LGTB eskubideen mugimendua, MeToo eraso sexualen aurkako mugimendua... Tradizio progresista aurrerakoi bat dago, baina AEBetan konkista bat lortzen denean, atzerapauso bat etortzen da atzetik. Liburuan, metafora bat eginez, aipatzen dut "Araknido Handi" bat dagoela atzean, eta AEBetako munduko lehen demokrazia modernoaren zutabeen artean, araknido horrek hor armiarma

sare bat sortzen duela. Hori, azkenean, supremazia txuria da. Sare hori deuseztatzen duten aldiro, berriz ere berreraikitzen du. Horrela izan da historikoki. Prozesu hori eman zen Obama lehen presidente beltza boterera iritsi zenean; Trumpen aukeraketaren erreakzioa etorri zen. Supremazia txuriaren erreakzioa izan zen, eta hor kokatzen da ere Charlottesvilleko gertakaria. Supremazismo txuriak maskara guztiak kendu ditu, zentzu guztietan, pandemiaren erdian ere. Liburuak erakutsi nahi du AEBetan hasieratik izan den supremazismo txuri horrek boterearen egituretan jarraitzen duela. Horregatik diot Bidenek eta Harriek oso zaila izanen dutela. Herrialdea batzeko eta arrakala

**"POBREZIAK KOLOREA DU, ETA HORRI AURRE EGITEN EZ ZAION BITARTEAN EZ DA GATAZKA KONPONDUKO"**

horiek berriz ere sendatzeko borondatea izanen dute, baina aldaketa estrukturalak egin beharko lituzkete; Obama ez zen horretarako gai izan. Denak du kolorea AEBetan; pobrezia kolorea du. Eta horri aurre egiten ez zaion bitartean ez da gatazka konponduko. Hori oso zaila da, besteak beste AEBak munduko herrialde kapitalistena delako eta kapitalismoak bizirauteko pobrezia behar duelako, desberdintasun hori. Eta AEBetan desberdintasun horrek kolorea du. Horregatik diot oso zaila dela. Saiatuko dira, aurrerapausoak eta konkistak etorriko dira...

... baina "Araknido Handi" berriro hasiko da sareak josten.

Supremazismo txuriak hor jarraitzen du eta horri aurre egitea oso zaila da AEBetan.

AEBetan ia ezkutuan dagoen gertakizun bat kontatzen duzu, 1921eko ekainaren 1ean Tusla bonbardatu zutela, petrolioari esker ongizatea lortu zuen komunitate afroamerikar bat deuseztatzeko, oraindik argitu ez diren arrazoiengatik.

AEBetan gehienek ez dute gertakari hori ezagutzen, ikaste-txeetan ez delako irakasten, historia liburuetan ez delako agertzen eta herrialde horretan memoria historikorik ez dagoelako. Tulsa Oklahoman dago, eta hor sortu zen 'Wall Street beltza' zeritzotena. Auzo nahiko aberatsa zen, petrolio aurkitu zutelako, baina beltzak ziren, eta horrek garai horretan, 1921 urtean, Ku Klux Klan eta supremazista txuriak erotzen zituen, halako auzo oparo bat egotea beltzen esku. Horrela, argitu ez den gertakizun bat aitzakia hartuta, Lehen Munduko Gerrako hegazkinak dekomisatuta zeuden aireportu txiki batetik hegazkinak atera eta auzoa bonbardatu eta deuseztatu zuten. Ehunka hildako izan ziren, ikerketa batzordeak egon dira... baina inoiz ez da argitu. AEBetan hori gertatzen da; nik beti esan izan dut gainetik porlana botata estaltzen dutela historia. Auzo hori zegoen tokiaren gainean ikaragarritzko autobide handi bat egin zuten. Hori AEBetako historia da. Jen-deak ez du ezagutzen, eta nik askotan esaten dut AEBetan historia fikzioaren bitartez iristen zaigula, edo Hollywoodeko pelikuletan. Baina ez dago benetakoa memoria historikorik. AEBetan horrelako garbiketa etniko ikaragarriak eta sarraskiak gertatu dira historian zehar. Memoria hori aldarrikatzen dut, AEBetan ez delako landu.

#### MUSIKAREN GARRANTZIA

**Musikak garrantzi handia du liburuan. Billie Holidayk 1939an Cafe Societyn lehen aldiz Abel Meeropolen 'Strange Fruit' poema kantatu zuenetik hasita –afroamerikarren zapalkuntzaren kontrako nolabaiteko ereserkia–, Woody Guthrie, Bob Dylan, Johnny Cash, Bruce Springsteen, punk mugimendua, Rage Against The Machine... Musika oso garrantzitsua da, ezta?**

Musika oso garrantzitsua da bizitzan, niretako ezinbestekoa da. Musika gabe, zer izango ginatke? Musika arima elikatzen duen zerbait da. Liburuan garrantzi handia dauka. AEBetan

**"SUPREMAZISMO TXURIAK BOTEREAREN EGITURETAN JARRAITZEN DUELA ERAKUSTEN DU LIBURUAK"**

musika ideologiaren eta tradizio aurrerakoi baten ibilgailua izan da, musikaren bitartez gauza asko ulertzen direlako eta hurbiltzen gaituelako. Nork ez du ezagutzen Bob Dylan, Rage Against The Machine edo hip-hop? Liburuan 30. hamarkadatik, folkie mugimendu horretatik, honainoko ibilbidea egiten dut. Woody Guthrie da folkie mugimenduko aurpegi ezagunena. Oklahomako antifaxista bat zen, arrazakeriaren eta faxismoaren kontrako kantak egiten zituen, eta horrek gero ekarri zuen atzetik etorri zen tradizio guztia. Guthrie inspiratu zituen Pete Seeger, Bob Dylan bera... horrek musika konprometituaren tradizioa ekarri zuen AEBetara. Eta hor musika beltzak izan duen garrantzia sartzen ere saiatu naiz. Askotan ez dugu gure burua horrela ikusi nahi, baina gu neurri handi batean AEBetako satelite kulturalak gara, hor daude gure erreferente kultural asko. European tradizio oso luzea dugu, baina AEBetako musikak eta Hollywoodek guregan eragin eta itzal ikaragarri handia du eta neurri batean orbita horretan gaude. Horregatik egiten zaigu hain ezagun. 60. hamarkadan Vietnameko gerraren kontrako mugimenduak, edo eskubide zibilen aldeko gatazkak, soinu banda bat izan zuten, eta horrek hurbiltzen gaitu. Horregatik musikak garrantzi handia du liburuan. Musika hori entzuteko Spotify-en *Las grietas de América* izeneko playlista sortu nuen, liburuaren irakurtzen den bitartean musika entzuteko. 150 kanta inguru dira.

#### ITZALAK ETA ARGIAK

**Liburuaren bukaeran esaten duzu AEBetan biolentziak eztanda egiten duenean ez dela ezer aldatzen eta, aldi berean, guztia aldatzen dela, eta biolentzia, aldi berean, AEBen garapenaren motorra dela. Industria teknologikoa mugan harresiak jasoz garatzen da, bideozaintza sistema garestiak sortzen... finean, gatazkak AEBen supremazia ekonomiko eta kulturala ekarri duela mundu mailan. Baina esperantzarako tartea zabaltzen duzu, esanez, hala ere, AEBak aukeren herrialdea izaten jarraitzen dutela. Aldaketak iritsiko dira?**

AEBetan badira argiak eta badira itzalak. Neurri handi batean AEBek indarkeriaren bitartez lortu dute mundu mailako po-





Mikel Reparaz Delaweren atzean Joe Biden duela. UTZITAKOIA



Mikel Reparaz Bidenen hauteskunde prozesua jarraitzen. UTZITAKOIA

tentzia nagusia izatea, bai barruan, arrazakeriarekin, poliziaren indarkeriarekin, justizia sistema jakin batekin, eta baita kanpoan ere, herrialdeak inbadituz. Egun erabiltzen ditugun hainbat aurrerapen teknologiko, internetetik hasita, AEBetako asmakizun militarrik dira, biolentziaren fruitu. Baina AEBetan badira ere argiak. Nik uste dut liburu ez dela iluna. Historia ilun bat kontatzen du, zalantzarik gabe. Une batzuetan liburu oso gogorra da. Baina baditu argiak ere. Iruditzen zait AEBak, edozein gizaki bezala, gauzarik onenak eta gauzarik ilunenak egiteko gai dela. Hala ere, gizakiarengan konfiantza izan behar da.

#### **BIGARREN KOADERNOTIK SORTUTAKO EMAITZA**

**Noiz erabaki zenuen liburu bat idatzi beharra zenuela?**

Irratirako eta telebistarako lan egiten dut. Minutu bateko piezak egin behar dituzu, hor sartu behar duzu kontatu behar duzun guztia; hor amaitzen da gure lana. AEBetako 50 estatuetan zehar ibili naizenean, nire kazetari estaldura lan guztietara bi koaderno eramaten nituen. Batean telebistarako eta irratirako kronikak idazten nituen, eta bestean nire hausnarketak, pasadizoak eta

bestelako elkarrizketak. Eta bigarren koaderno horrek eman dit liburu idazteko materiala. Nire korrespontsal urteen inguruan zerbait sakonagoa kontatu nahi izan dut beti. Hasierako asmoa dokumental bat edo pelikula bat egitea zen, baina azkenean idaztea erabaki nuen, materiala idatzita nuelako. Prozesu natural bat izan zen. Idaztea, berez, bi urteko lana izan zen. Denbora asko kendu zidan baina oso pozik nago liburu idatzi eta argitaratu izanarekin. 3. edizioa du dagoeneko, oso ongi doa.

**Kontentu zaude emaitzarekin? Edo zerbait gehitu izanaren edo aldatzearen arantz duzu?**

Liburuaren epilogoaren izenburua "jarraituko du" da, azkenean hau ez baita amaitzen. Liburu maiztean atera behar zen, koronabirusarengatik atzeratu zen, eta horrek bidea eman zidan eguneratu eta George Floyden hilketa, koronabirusa bera eta beste zenbait gertakari kontatzeko. Liburuaren amaiera iraila da, 2020ko hauteskundeak.

**"HISTORIA FIKZIOAREN BITARTEZ IRISTEN DA ASKOTAN; AEB-ETAN EZ DAGO MEMORIA HISTORIKORIK"**

Azkenean pozik gelditu naiz liburuarekin, iruditzen zaidalako liburu ateporal bat dela.

**Ateporala izateko asmoa lortu duzu, eta halako gai batekin hori oso zaila da...**

Momentu historiko bat kontatzen du, baina aldi berean gatazka historiko bat kontatzen du, erreferentzia historiko askorekin. Nik uste dut ere gida liburu moduan funtzionatzen duela, AEBak aztertu eta jendeari laguntzeko bertan gertatzen dena ulertzen. Iruditzen zait askotan AEBei begi europarekin begiratzen diegula; gauza asko ikaragarriak iruditzen zaizkigu, esaterako, nola poliziak hil ditzakeen armarik gabeko mutil beltzak tiroz. Baina horrek badu atzean historia luze bat, eta hori da liburuan idazten saiatu naizena. Beti iruditzen zait arrazakeria dela AEBek duten bekatu originala edo arazorik handiena, eta horregatik horri jarri nion arreta. **Liburuak gai asko ukitzen ditu, baina aldi berean, arintasuna du. Ez da nobela bat, baina erraz irakurri daiteke.**

Nire obsesioa zen irakurgarria izatea, tonu literario bat izan zezala. Erreportaje bat da, baina erreportaje literario bat, eta iruditzen zait ez dela liburu astun bat. Uste dut erraz irakurtzen dela.

**Liburuaren balorazio oso ona egiten ari dira zure lankideak, kazetariak, adituak... Twitterren sartzeari ez dago. Halakoak irakurtzerakoan zer sentitzen duzu?**

Kristoren poza eta ilusioa, aitortuko dizut. Nik ez dut nuen orain arte liburu bat argitaratu, eta esaten dute ia ume bat izatea bezala dela. Neurri batean egia da, bat batean liburuak bere bizia hartzen duelako eta hor doa, aurrera; jada ez da nirea, hor dago, jendeak irakurtzen du eta bakoitzak bere iritzia du. Bidenen jarraipena egiten egon naizenean kazetariak etorri zaizkit esatera irakurri dutela; poza ematen dizu, pentsatzen duzulako gutxienez idatzi duzun horrek interesa piztu duela. Ez duzu liburu bat diruagatik idazten; liburuak ez dira asko saltzen, baina konturatzen zarenean eragin bat baduela, jendeak baloratzen duela, edo baliagarria zaiola AEBak ulertzeko... hori da handiena.

**Argialetxeak ez al dizu proposatu liburu itzultzea? Liburu oso inkurri daiteke.**

**"NIRE KORRESPONTSAL URTEEN INGURUAN ZERBAIT SAKONAGOIA KONTATU NAHI IZAN DUT BETI"**

**teresgarria da kanpotarrendako, baina baita estatu batuarrendako ere, hausnarketa tresna garrantzitsua izan daitekeelako.**

Liburu irakurri duten estatubatuarrek, lagunek eta baita kazetariak ere, horixe bera esaten didate, liburu oso baliagarria dela estatubatuarrendako, oso ikuspegi ezberdina duelako. AEBetan arrazakeria eta gatazkaren inguruan milaka liburu idatzi dira, pelikula, dokumentalak... baina hau beste ikuspegi bat da, hona etorri den kazetari europar batena. Nik euskaraz argitaratzea nahiko nuke, Amerikako arrakalak atera daitezela euskaraz, eta baita beste hizkuntza batzuetan ere. Mundu editoriak bere mekanismoak ditu, eta auskalo.

#### **SAKANAKO AURKEZPENAK**

**Sakanan aurkeztuko duzu liburu, larunbatean, hilak 14, Arbizon (19:00etan, batzar gelan, Pello Urzelaik aurkeztuta), eta asteazkenean, azaroak 18, Etxarri Aranatzan (19:00etan, liburutegian).**

Niretako Sakanan liburu aurkeztekin ezinbestekoa da. Arbizon, nire herrian, baita Etxarri Aranatzan izanen naiz, eta Altsasun ere aurkeztu nahiko nuke. Pandemiagatik aforoak oso txikiak dira, baina hor izanen gara.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

## Zakua lepoan

COVID-19aren bigarren berragertze olatua iritsi da. Oraingoan gizartearen ikusmiran dagoen bikote bateragarri hau izan da erruduna: gazteak eta botiloak.

Igandero hauekin loturiko albisteak hedabideetan: positibo kopuru berrien datuak lehenengo, horien portzentaje jakin bat gazteak direla esaten eta horrekiko herritarren hausnarketak, epaileak bailiran. Beste arduragabekeria batzuk egingo ez balira bezala. Botiloi batean parte hartzeak segurtasun neurriak ez errespetatzera eraman gaitzake, noski. Unibertsitatera edo lanera joateko autobusean edo metroan sartzeak, baita ere. Botiloia egitea: aukera arduragabea, eta autobus sardina latan ikastera edo lanera joatea: betebeharra. Hortxe dago giltza. Ezarri diren neurriak apur bat laburtzearen: etxetik lanera eta lanetik etxera; argi? Arazoak ostalaritza eta gaueko hamarretatik goizeko seietara bitarteko kontuak direlako. Eta gazteak.

Arduratsua izateko eskatzen digute zentzurik ez duten neurri arduragabeen aurrean. Osasun krisi batean osasun neurriak behar dira eta askatasun sozialen etetea ez da horien artean aurkitzen. Lepogainera jaurti diguten neurrien zaku horrek argi eta garbi erakusten du neurriak nork, norentzat eta zergatik inposatu dizkiguten.

Orain askatasuna eten digutela eta ostalaritza itxi dutela, hurrengo olatuan nori botako diote errua? Zertan oinarrituko dira orain autonomia erkidegoetako gobernuak, hedabideak eta hauen histeria kolektiboaren biktima diren herritarrek? Ikusiko dugu. Beharbada birusaren hirugarren olatua Olentzerori leporatuko diote.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Gurasoen alienazio sindromea

#### SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Edo amak kaltetzeko sistemak asmatu duen beste aitzakia bat. Artikulu batean Ester Ruiz Martinek, LUNA elkarteak, sindromea zertan datzan azaltzen du eta laburpena ekarri dugu.

1985ean AEBetako psikiatra batek erabili zuen lehenengo aldiz, eta bikote banaketa baten aurrean tratu txarrak aipatzen direnean aplikatzen ohi da sindrome hau. Oinarrian esaten du haur batek gurasoetako batekin egoteari uko egiten badio, beste gurasoak manipulatu egin duelako dela. Eta, nola ez, kasuen gehiengo handian ama jotzen da manipulatzailatzat. Eta zertarako manipulatu? Ba txikiak tratu txarrak edo abusuak "asmatzera" iristeko.

Gurasoen Alienazio Sindromearen kontrako Plataformako koordinatzailea den Ester Ruiz Martinek dio sindrome hau asmatu eta erabiltzen hastea Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralaren kontraeraso bat bezalako tresna bat dela. Eta nola iritsi zen Estatu Espainolera? Ba, aipatu koordinatzailearen esanetan banandutako aiten elkarteren baten eskutik, nahiz eta ordurako munduko elkarte zientifiko eta psikologiko guztiek deuseztatua izan balizko sindrome honen existentzia. Osasunaren Mundu Erakundeak ere baztertu du sindrome hau existitu daitekeenik.

Baina oinarri zientifikorik ez badu ere, "mozorrotuta" joan omen da sartzen bai

sistema judizialean baita Gizarte Zerbitzuetako haurtzaroko departamentuetan ere. Instrumentalizazioa, amaren manipulazioa, kezka morbidioa, leialtasun gatazkak... izenekin deitzen diote eta helburua haurraren eta amaren hitza kolokan jartzea da, Ruizen ustean.

Ester Ruizek sistema patriarkal eta matxista baten barruan kokatzen du, eta tratu txarregatik bereiztu diren ama eta bere seme-alaben kontra doala, zuzen, beste zigor bat bezala.

Dibortzio kasuetan, epaile batek onartzen dituen amak ustezko sindrome hau edota goian aipatu ditugun izen ezberdinetako "gaitzak" pairatzen dituela, haurren zaintza amari edo aitari emateko garaian amari umeak kentzea nahiko ohikoa da Esterren hitzetan. Ama berriro jipoituta, oraingoan sistemak jipoituta.



## OBJEKTIBOTIK

### Ziordia arabarra da

Lasai, gure bizilagunek ez digute herria lapurtu, Ziordia izeneko olio merkaturatu besterik ez dute egin. Arabar Errioxan, Ziordia oliba olio solidarioa ekoizten ari dira, litro erdiko 325 botila saldu ahal izateko. Jasotako dirua Arabako Caritas elkartera bideratuko dute, Landa Eremuko Adineko Pertsonak Laguntzeko Programari bultzada bat emateko hain zuzen.



UTZITAKOIA

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
info@gkomunikazioa.eus  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





Irurtzunen egingo duten saihesbidearen plana. IRURTZUNGO UDALA

## Saihesbidea eta autobiako irteera lotuta

Lizarra eta Aralar kaleak lotuko dituen errepide berriak trafikoa eta segurtasuna handituko ditu heldu den urtean. 2022an, berriz, Izurdiagako saihesbidetik autobiarara ateratzeko irteera egingen du Nafarroako Gobernuak

**Alfredo Alvara Igoa** IRURTZUN

San Martin egunean, festak ez izanik ere, irurtzundar askok poza sentitu zuten. Poza jakin zutelako saihesbidea egiteko akordioa itxi zela. Aitor Larraza Carrera alkatea Bernardo Ziriza Lurralde Kohesioko kontseilariarekin eta Pedro Lopez Herri Lan eta Azpiegituretako zuzendari nagusiarekin elkartu

zen asteartean eta proiektuaren berrikuspina onartu zuten asteartean.

"14 urteren ondoren, herriak izan duen eskaera bat aurrera eramatea oso pozgarria da, egia esan". Aitor Larraza Carrera Irurtzongo alkatearen hitzak dira. "Legegintzaldi honetan eta aurrekoan lehentasun gisa markatuta genuen. Beti lehen-

tasun bat izan da saihesbidea Irurtzunen". Alkateak gaineratu duenez, "azkenean balioztatzen du proiektu originalaren birmoldaketa bat. Eta horrekin batera, eta oso garrantzitsua da, autobiderra irteera zuzena egin ahal izatea".

Adostutakoaren arabera Lizarra eta Iturtxoko kaleen bidegurutze ondoan errotonda

eginen da. Handik errepide berria egingen da industrialdearen eta etxeen artean. Bideberri hori Aralar eta Akaborro industrialdearen bidegurutzean bukatuko da. 300 metro luze eta 7 metro zabal izanen ditu bideberriak, bi errei izanen ditu eta herriaren aldean bi metroko espaloia egingen da.

Alkateak adierazi duenez, "Irurtzun erditik pasatzen dira Oskiateko harrobietako kamioi guztiak. Erdigunetik industrialdeko pisudun trafikoa handia pasatzen da. Hori eragozteko hasi zuen lanketa Saihesbidearen Aldeko Plataformak. Hori eragozteko eskaera, gainera, hainbat udalena izan da". Herri Lan eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak 2019ko errepideen edukierari buruz bildutako datuen arabera, 500 ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira egunean Asteira indik Irurtzunerara doan errepidean, NA-7010 errepidean, eta 2.675 ibilgailu igarotzen dira egunero N-240-A errepidetik. Alkateak ziurtatu duenez, saihsbidea egiteak "mugikortasunaren arloan aukera handiak ematen dizkigu hemendik urte batzuetara".

### Autobiara lotu

Izurdiagako trenbide pasa kentzeko herriko bi auzoak lotzen dituen eta autobiararen mende baldetik doan errepide erabiliko da autobiarekin lotura egiteko. "Ikusten da industrialdean ezarritako enpresendako beharrezkoa dela Iruñerrira joateko irtenbideren bat ematea, herrigunetik pasa gabe". Bi egitasmoek, guztira 1.192.533 euroko aurrekontua dute. Heldu den urtean Irurtzongo saihsbidea egingen da eta, horretarako, 700.000 euro bideratuko dira.

2022an, berriz, autobiarekin lotura egingen da.

### Gobernuarekin gehiago

Irurtzongo Udalak Nafarroako Gobernuarekin hirigintza arloko beste bi gai lantzen ari da. Alde batetik, Trinitate kalearen 19. zenbakian kamineroen partzela dago. Irurtzongo Udalak hura eskuratu eta hura urbanizatu nahiko luke. "Irurtzunen ere badugu etxebizitzaren arazo. Alokairu merkeko etxebizitzaren beharra badago". Horregatik udalak espazio horretarako Hiri Jardunetarako Plan Berezia abiarazi zuen. "Nafarroako Gobernuari han etxebizitzak kopuru jakin bat egitea proposatu genion. Momentu honetan eremua Herri Lan Departamenduarena da eta Ondare Zerbitzura pasatzeko tramieta ari dira. Ondoren ondarekoekin bildu beharko gara jakiteko gune horrekin zein asmo dituzten".

Eremu horren parean, Trinitate kalearen 26an eta 28an, Nafarroako Gobernuak bi etxebizitzak bloke ditu, 16 etxebizitzak guztira. "Zerbait egiten bada, zerbait integrala egiten saiatuko ginatke, kamineroen eremua eta etxebizitzak horiek hartuko dituen. Egia esan, herrigunerako planteatutako etxebizitzak dexente dira eta ez dakigu nola bideratuko den gaia. Hau saihsbidearen gaia bezalakoa da, urtetan egin beharrekoa".

**"14 URTEREN ONDOREN, HERRIAREN ESKAERA AURRERA ERAMATEA OSO POZGARRIA DA" AITOR LARRAZA**

## Mikel Arregi gogoan

1979ko azaroaren 11n guardia zibila Mikel Arregi lakuntzarra eta bere hiru lagun zihozan autoa tirokatu zuen Etxarritik pasatzen ari zirenean, eta ospitalera bidean hil zen HBko zinegotzia zena. Asteazkenean Mikel Arregi izan zuten gogoan bere izena daraman Etxarri Aranazko plazan, haren monolitoaren aurrean egin zen lore eskaintzan.







Lehenengo atxiloketen ondorengo mobilizazioak. ARTXIBOA

## Lau urte, 1461 egun

Ferietako liskarratik lehenengo zortzi gazteen atxiloketak duela lau urte izan ziren, liskarra izan eta hilabetera. Ondoren, altsasuarren espetxeratzea eta epaiketa izan ziren. Baita elkartasun adierazpenak ere

### Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

2016ko azaroaren 14. 8:00ak, eta Altsasun Guardia Zibilarren eta poliziaaren presentzia handia zen. Kale batzuk moztu zituzten. Operazio horretan urrian ospatutako ferietan izandako liskarratik Audientzia Nazionalean irekitako salaketan agertzen ziren bederatzi altsasuarren atxiloketa zitu zuten. Hurrengo egunean, haietako sei espetxean sartu zituzten: Iñaki, Oihan, Jonan, Julen, Jokin eta Aratz. "Izaera terrorista duten lesio delituak" egitea egotzi zizkieten. Eta baldintzarik eta bermerik gabeko espetxe zigorra ezarri zieten hasiera batean. Ihes egiteko arrisku handia zegoela argudiatu zuten, urriaren bukaeran gazteak Nafarroako epaitegian borondatez aurkeztu baziren ere. Zazpigarren gaztea, Adur, Auzitegi Nazionalean borondatez aurkeztu zenean atxilotu eta espetxeratu zuten, egun batzuk beranduago. Ordutik ia 1500 egun pasa dira; lau urte.

Altsasu Auziaren lehenengo atalak izan ziren. Lehenengo atxiloketak eta haiek salatzeke lehenengo mobilizazio jendetsuak izan ziren egunotan duela lau urte. Urte hauetan iraun

du elkartasun adierazpenak. Esaterako, ostiralero Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasuko Aske plataformak deitutako kontzentrazioak egiten dira Altsasuko Udaletxearen aurrean. Pandemiaren ondorioz eragindako konfinamenduan baino ez zituzten kontzentrazioak eten. Denak aske izan arte egiten jarraituko dute.

Orain, egoera desberdina da. Jonan eta Julen dira espetxean dauden bakarrak, eta aurreko asteko GUAIXE astekarian lanera ateratzeko baimena ukatu zieten esan baten ere, ikastera ateratzeko baimena eskatu zutela jakinarazi zuten Altsasu Guraso taldeak. Dena dela, bi gazteak bigarren graduan daude eta aldi behin egun batzuetarako kartzelatik ateratzeko baimena dute, baina gero hamar egun bakartuta egon beharra daukate. Adur, Jokin eta Oihan, 1326 egun preso egon ziren, eta gaur egun hirugarren graduan daude; besoko telematikoa dute. Aratz eta Iñaki aurreko urteko abendutik hirugarren graduan daude eta kontrol telematikoa dute ere. 588 egun preso egon ziren. Ainarak ez zuen kartzelara sartu behar izan zigor txikiena zuelako.

### 4 urte. Altsasukoak Aske

Altsasuko ferietako liskarra izan ondoren Altsasu herriaren eta izenaren kontrako informazioak zabaltzen hasi ziren. Kontran, herriak erantzun zuen eta 2016ko azaroaren 26an #Altsasu lelopean manifestazio jendetsua egin zen herrian. Hasieratik ere Altsasuren eta zigortutako altsasuarren eta haien senideen aldeko elkartasun keinuak hamaika izan dira.

Aurtengo egoera bereziak ez du aurrekoetan bezala urteurrena modu berezian aldarrikatzen utzi, baina larunbatean atxiloketen lau urte betetzen diren egunean, Elias Taño artistak egindako panel bat eta 4 urte. Altsasukoak Aske eskultura eta panel informatiboa jarriko dituzte Foru plazan Altsasukoak Aske plataformak eta Altsasu Gurasoak taldeak. Ekimena goizean zehar izanen da.

## "Baso politika hobetzeko" proposamena egin du EH Bilduk

"Basoen zaintzearen, erabiltzearen eta ustiatzearen garrantzia hobe ikusaraziko duen baso politika" eskatu du

### ALTSASU

Altsasuko EH Bilduk herriko basoak hobetzeko zortzi proposamen publiko egin ditu. Helburutzat jo du joan den mendean landatutako pinu guztiak kentzea, "gure zoruari eta natura aberastasunari kalte handia egiteagatik". Koalizioak proposatu du pinudietan garbiketak eta argitzeak egitea, eta han sortutako "tokiko landareak laguntzea, eta, behar izanez gero, landaketa autoktonoekin laguntzea". Pinua bezala, Amerikako haritza basotik kentzea ere helburua dutela adierazi dute. "Horretarako, beharrezkoa izanen da makinetan eta langilerian inbertitzea". EH Bilduk proposatu du basoteknikari bat kontratatzea, "gure mendietan urtero garatzen den udal politika aurrera eramateaz arduratuko dena, eta bere esanetara langile kuadrilla izanen duena".

Koalizioak azaldu duenez, Amerikako haritza ezabatzeko "politika irmo eta erabakigarria" ezinbestekoa da, beti ere, basoan

bertako haritza izateko helburuz. Amerikarra bertako haritza baino azkarrago hazten dela kontuan izanik, EH Bilduk proposatu du eremuak markatzea eta bertako haritza dagoen tokietan Amerikako haritz landarea eskuz kentzea. Eta Amerikako haritz landare handiagoak dauden eremuetan haiek moztu eta garbitzea, "horrela inbasio horrek hartutako eremu guztietan". Gaineratu dutenez, "lanok eskulan handia beharko lukete eta asko iraunen lukete, gure ustez gure herriarendako onuragarria da".

EH Bilduren iritziz, "gure basoan beharrezkoak diren garbiketak, argitzeak, bakanketak, landaketa eta bestelakoak egiteko beharrezkoa da udalak sasi-garbitzeko makina traktorea erostea". Helburu gisa jarri du "joan den mendean ia desagertu zen gaztainondoa berreskuratzea". Basoitxin edo Dameroan egiten ari diren bakanketa baliatuz, gaztainondoekin eta intxaurrondoekin birpopulatu daitekeela proposatu du.



### DUELA 25 URTE...



### Sukalde berritua Iturmendin

Gaur egun bezala, 1995ean ere Iturmendin ez zegoen tabernarik. Eta elkarte bakarra zegoen. Jendeak estimazio handia zion, jakina. Elkarteko sukaldeak, erabileraren erabileraz, aldaketarako premia zuen. Horregatik, 20 urtez zerbitzua eman zuen sukaldeak kendu eta guztiz berritu zuten. Lanetan elkartekideek parte hartu zuten hainbat auzolan eginez. Horrela, Aritzaga elkarteak segitu zuen iturmendiarren ospakizunen eta topaketen lekuko izaten.



Joan den asteburuan hasi ziren txapa banaketarekin. UTZITAKOIA

## Aintza zuri belarriprest!

Belarriprest gisa Euskaraldian izena emateko eskatu diete zalantzan daudenei, Euskaraldia aurrera ateratzeko euren rola ezinbestekoa delako

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Euskaraldia hasteko aste bat falta da. Ariketa sozial horrekin hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotu nahi da azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Izena emateko epea zabalik dago oraindik eta, oraingoz jende gehienak ahobizi rola aukeratu du. Baina Euskaraldia aurrera eramateko bi rolak dira ezinbestekoak, belarriprestak ere.

Aurreko edizioako emaitzek azalatu zuten, belarriprest gisa parte hartu zutenek ariketa egin aurretik baino jokoera aktiboagoa izan zuten, gerora, hizkuntzarekiko. Beraz, belarriprest rolak norberaren zein inguruko hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzen duela azpimarratu dute, euskaraz gehiagotan egiteaz gain, inguruko ei hala aritzeko gonbidapena egiten baitiete belarriprest direnek.

### Belarriprest sakandarrak

Lehen edizioan eta oraingoan belarriprest izanen diren sakanarren lekukotzak jaso ditugu.

**Cristina Gonzalez** altsasuararak aurreko Euskaraldian parte hartu zuen. Adierazi duenez, "niretako euskara kulturaren parte oso garrantzitsua da. Nik ez dut ikasteko aukerarik izan. Euskaltegietan eta egon naiz, baina hitz egitea zaila egiten zait". Gonzalezek bere inguruan euskara hitz egiten duen jendea du; semea euskaraz aritzen da. "Uste dut ekarpena egin beharra dudala". Lehen Euskaraldia

esperientzia "ona" izan zen berarendako, "dibertigarria da". Azaldu digunez, "lanera, dendarra, jendea euskaraz hitz egiten etorri zen. Beti dago, baina Euskaraldiarekin arreta gehiago jarri nuen. Jende guztia saiatzen zen ni ulertzeko moduan hitz egiten. Egia esan, gustura, dakizun gutxi az gogoratzen duzulako".

**Isabel Gallego** irurtzundarrak "mintzapraktika egiteko" parte hartu zuen aurreko Euskaraldian. Esperientziak galdetuta esan duenez, "pixka bat arraroa izan zen, baina polita". Aurten "hobe" ariko dela esan du. **Egoitz Aldaz Osinaga** olaztiarrak "euskararen alde" dagoelako parte hartu zuen aurreko Euskaraldian. Bere esperientzia honela laburtu digu: "ona izan zen, baina pixka bat gogorra". **Daniela Alonso** irurtzundarrak "euskara praktikatu nahi zuelako" parte hartu zuen Euskaraldian. Esan digunez, ariketa sozialak "famiarekin ez zuen funtzionatu, baina lagunekin bai. Esperientzia ona izan zen". **Juankar Mogollon** irurtzundarrak azaldu duenez "2018ko Euskaraldian oso gustura ibili nintzen euskara praktikatzeko". Aurten ere belarriprest izanen da.

### Etxarri Aranazko AEKko ikasle belarriprestak

Etxarri Aranazko AEKko ikasleak ere belarriprestak izan ziren eta izango dira. **Ariane Paniaguak** esan duenez, aitzakia oso ona izan zen umeekin euskaraz hitz egiteko eta bizitzeko. **Maite Arruaba-**

**rrenak** euskara ulertzen du, "baina hitz egiteko, elkarrizketa segitzeko, ezin dut. Urduri jartzen naiz. Oso gustura etortzen naiz ikastera eta lasaiago egoten naiz kalean euskaraz egiten. Jendeak laguntzen dit". Maitek belarriprest izatea erabaki du "lasaiago ibiltzeko". **Eufemia Razkinek** esan duenez, "oraindik ez daukat konfiantza hitz egiteko euskaraz, baina denborarekin, segurua, hobe ikasiko dudala". **Reme Ulaiarrendako** aurreko Euskaraldia "esperientzia ona izan zen. Jende asko ikusi nuen euskaraz hitz egiten edo saiatzen behintzat, Etxarrikoan eta batuan. Jendea oso pozik ikusten nuen, lotsagabe. Hori oso garrantzitsua da". **Mattias Bergmanendako** esperientzia ona izan zen aurreko Euskaraldia. "Orduan Arbizon bizi nintzen eta arbizuarek bazekiten nor nintzen. Eta beti euskaraz hitz egiten nuen kalean. Baina Iruñera joaten nintzenean, belarriprest txapa oso ona zen jende berriarekin euskaraz hitz egiteko".

**Dolo Urkijok** esan duenez, "aurreko aldia oso aberasgarria izan zen. Askok ikasi nuen. Eta jende gehiago hasi zen nirekin euskaraz egiten, eta beti errespetu handiarekin, nahiz eta gutxi nekien. Aurten ilusio handia daukat, gehiago ikasteko eta gehiago hitz egiteko". **Asun Erdozia** "oso gustura" sentitu zen lehen Euskaraldian. "Orain, pixkanaka, baina aurrera" joatearen sentipena du, "hitz gehiago eta garbi egiten dut".

## Nafarroan 0-3 zikloa aztertzeo lantaldea osatuko da

Bertan hura kudeatzen duten erakundeen ordezkariak parte hartuko dute

SAKANA

Haur Hezkuntzako lehen zikloa hobetzeko aldarrikapen dinami-ka handia zuen Nafarroako 0-3 Plataformak, pandemia iritsi eta guztia eten zuen arte. Hala ere, plataformako kideek beraien aldarrikapenei eusten diete, esate baterako: gela bakoitzean dagoen haur kopuruaren ratioa jaitea eta bat egitea Haurrendako Europako Batzordeak gomendatzen dituen ratioekin. Aldaketa hori onartuz gero gaur egun Nafarroan indarrean dauden ratioak erdira jaitsiko liriteke. Horrekin batera langileen soldatak handitzea ere eskatu dute.

Plataformako kideek eta Nafarroako Gobernua osatzen duten alderdi politikoei bilera izan zuten joan den ostegunean. Plataformaren iritziak, "klase politikoak zikloaren baldintzak hobetzeko borondatea erakutsi du, baina denbora luzean lehen aldiz, urrats sendoak emateko eta hezkuntza ziklo hori duintzeko bidean aurrera egiteko sentsazio komun batekin atera ginen bileratik. Garrantzitsua iruditzen zaigu Gobernuak Haur Hezkuntzako lehen zikloko lantalde ofizial bat sortzeko hartutako konpromisoa". Orain arte egon ez den sektoreko mahaia izanen da.

### Aurrekontuak

Foru administrazioak ikasturte honetan errefortzuzko langileak kontratatuzko 1.365.000 euro iragarri zituen lastailaren 30ean. Plataformatik azaldu dutenez,

diru hori aurtengo aurrekontuko da eta bi iturrietatik osatuko da. Batetik, EH Bilduren eta PSNren arteko 2020ko aurrekontuen akordioan hitzartutako 600.000 euroak. Eta, bestetik, aurreko ikasturtean 0-3an gata gabeko aurrekontutik. Izan ere, martxoan haur eskoletako langileen kontratuak bertan behera gelditu ziren eta, horren ondorioz, Hezkuntza Departamentuarekin sinatutako finantzaketa hitzarmena ezin izan dute bete udalek, langile gastuak justifikatzerik ez zutelako. Gobernuak kopuru hori 0-3 ziklora bideratzea erabaki du.

Nafarroako 2021eko aurrekontuak onartzeko tramitazioa bete-betean etorri da albistea. Plataformako kideek emendakinak aurkezteko asmoa dute, "bi proposamen zehatzei aurrekontu nahikoa emateko". Bitartean batzordea osatzeko prozedura gertutik zainduko dute, "zentsuzko denboran eta moduan eratzeko".

## Lau Sakanan

- Uharteko Arakilen Pausoka haur eskola.
- Arbizon Kattuka haur eskola.
- Altsasun Txirinbulo haur eskola.
- Altsasun Txioika haur ikastola (ez du finantzaziorik jasotzen).

## Gasbideaz aritzeko lantalde bat sortzeko proposamena

Etxeberri eta Lekunberri arteko gasbide proiektuak ikutzen dituen Madotz, Oderitz, Astitz, Alli, Etxeberri, Egierreta eta Etxarrendo kontzejuetako ordezkariak eta hainbat herritar elkartu dira eta Nasuviunsa enpresa publikoari eskatu diote lantalde bat sortzeko. Hartan partaideak eta kaltetuak ordezkatzeko egon liriteke. Proposatzaileek uste

dute gasbiderako hiru proiektuetatik "baten alde argudio esanguratsurik gabe egin da, hutsune garrantzitsuak agerian utziz, eta alde bakarreko erabakia izan da". Lanak hasi ez direnez, garaia dela gaineratu dute.

Proposamenaren egileak kezu dira emandako informazioa "eskasa" izan delako. Kontzeju eta herritarren ordezkariak uste dute "oraindik garaiz" dabilzala, lanak ez baitira hasi. Nasuvinsak haien nahiarekin bat egitea eta lantaldea sortzea espero dute.





Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

# Klinikak kontsulta zentroa irekiko du Iruñean

Josefina Arregi klinikak "psikogeriatria eskuragarriagoa" jarri nahi die nafarrei zentro berriarekin. Cordovilla industrialdean egonen da eta hilaren akaberan zabalduko ditu ateak

## Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasutik Iruñerako saltoa eginen du Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoak hiriburuan egoitza berria zabalduz. Altsasun pilatutako urteetako eskarmen-tua oinarri dutela, Iruñeko mediku kontsulta zentroan honakoak eginen dituzte: psikogeriatriako, geriatriako eta neuropsikologia-ko mediku kontsultak, baita eta

errekuperazio eta errehabilitazio funtzionaleko zerbitzuak ere. Zerbitzu berri horren bidez klinikaren asmoa da Iruñerrira bere zerbitzua zabaltzea, psikogeriatrian espezializatutako erakunde bakar gisa finkatuz.

Cordovillako mediku kontsulta zentro berrian geriatrek, psikiatrek, neurologoek eta familia medikuntzak osatutako mediku talde

espezializatu batek lan eginen du, Josefina Arregi klinikak Altsasun 1994tik eskaintzen duena eskainiz. Zentro berriak neuropsikologia kontsultarako zerbitzua izanen du eta, gainera, Altsasun sortu eta 2017az geroz martxan den errekuperazio eta errehabilitazio funtzionalerako unitatea ere izanen du. Iruñerriko zentroak arratsalde zabalduko ditu ateak.

## Altsasuko zerbitzuak

Kanpoko mediku kontsultez eta errekuperazio funtzional anbulatorioko unitateaz aparte, Josefina Arregi klinikak egonaldi ertaineko ospitale bat eskaintzen du Altsasuko egoitzan. Bertan 21 ohe daude, guztiak Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin hitzartuta. Unitate horren helburua da buru nahasmendu organikoak

Klinikako zuzendari kudeatzaile Anjel Garadachalek esan duenez, "horrelako mediku zerbitzua behar duten ahalik eta pertsona gehien beharrei erantzutea garrantzitsua dela uste dugu. Paziente gehien dauden lekura hurbilduz, Altsasuko gure klinikara joateak sor diezazkiekeen eragozpenak saihestuko ditugu". Iruñerriko eta Altsasuko zentroak aldi berean ariko dira lanean, baina Gardachalek jakinarazi duenez, "Altsasuko klinika zerbitzu berriekin indartzen ari gara".

Gaineratu duenez, "pertsona askok gure zerbitzu medikuak eta terapeutikoak behar dituzte. Horregatik, Josefina Arregi klinikatik eta Felipe Lecea sortzailearen ametsarekin jarraituz, gure osasun zerbitzuak Nafarroako herritar gehienei hurbiltzeko apustua egin dugu". Gardachalek ziurtatu duenez, "proiektu berritzaile berriak garatzen eta martxan jartzen jarraituko dugu, klinika garatzen ari den jarduerak sendotuz eta indartuz, Altsasun instalazioak hobetuz eta eguneratuz". Josefina Arregi klinikak bere zerbitzuak eskuragarriago egiteko apustu horretan ezinbestekoa izan da Esteban Lizarraga eta Victoria Etxeberría fundazioaren, Adania fundazioaren, la- guntza eta finantzaketa.

duen paziente zaharrak diagnostikatzea, tratatzea eta errehabilitatzea, nahasmendu hori anbulatorioan artatzeko modukoak ez denean. Jokabide edo lo asal-dura larriak dituzten eta narriadura kognitiboa edo dementsia duten pazienteak artatzen ditu (Alzheimer, Lewyren gorputzen-gatiko dementsia...). Paziente gehienak beren etxetara itzultzen dira sendatu ondoren.

Eguneko zentro psikogeriatrikoa, narriadura kognitiboa duten eta etxean bizi diren pazienteetan espezializatua. Zentro horren helburua da adinekoa mantentzea eta berreskuratzea, estimulazio kognitiboa egitea, autonomia pertsonala zaintzea, harreman sozialei eustea, egonkortasun afektiboa eta etxean jarraitzea.

## Berrian

Iruñeko kontsulta medikoen zerbitzu berriak azaroaren amaieran irekiko ditu ateak, arratsalde. Zerbitzuak psikogeriatria kontsulta izango du, eta, bertan, Alzheimerra eta beste dementsia batzuk, jokabide aldaketak eta gaixotasunak (depresioa eta antsietatea) dituzten pazienteen diagnostikoa, tratamendua eta jarraipena egingo da. Neurospikologia kontsultak ere egingo dira, pertsonaren gaitasun kognitiboak ebaluatzeko, narriadurari dagoen zehazteko, bai eta haren eragin maila eta ezaugarriak zehazteko ere. Gainera, Iruñeko mediku kontsultek errekuperazio funtzional anbulatorioko Unitatea ere izango dute. Unitate horren helburua adinekoen autonomia berreskuratzea da, dementsia izan ala ez, beren kabuz moldatzeko eta beren etxeetan ahalik eta denbora gehien egoteko.



**EGUN ON SAKANA**  
goizero 10:00-12:00

web bidez  
[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**beleixe** 107.3 FM



**ALZATE ERAIKUNTZAK** s.l.

Zubeztia 21, Altsasu  
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600  
[www.construccionesalzate.com](http://www.construccionesalzate.com)




Trama zirrargarriekin disfruta ezazu

fotokopia@kaxeta.net

628.542.519

948.460.477



Utzubar industrialdea Arbizu  
948 460 499  
Nafarroako berezko txistorra

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -  
- AUTOMOZIOA -





**Etxera eramateko gasoleoa**

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaxe.eus

## OSTIRALA 13

**ALTSASU** Gozamenez: Film laburrak eta foruma: *Busti aniztasunez, bizi gozamenez.* Hizlaria: Itxaso Torregosa sexologoa.  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske

elkarretaratzea.  
20:00etan, udaletxearen parean.

## LARUNBATA 14

**ALTSASU** Barranka txirrindulari taldeak 40-50 km-tako ibilbidea egingen du.  
09:00etan, Zumalakarregi plazan.

**IRAÑETA** Udazkena Sakanan. Gure ibilbideak ezagutuz: Irteera familian Irañetako hariztian. Ibilbide gidatua eta dastaketa.

## ZINEMA

## ALTSASU

## IORTIA KULTUR GUNEA

**Yolanada** Mazkiararen *Anderea* film dokumentalaren emanaldia (gaztelaniaz)  
Ostirala 13: 19:00

*El secreto: Atrevete a soñar* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Igandea 15: 19:30

*Que suene la música* zineforum filmaren emanaldia euskaraz  
Igandea 15: 19:40

*Una pastelería en Notting Hill* gaurkotasunezko filmaren emanaldia  
Osteguna 19: 19:00

*El Drogas* filmaren emanaldia euskaraz  
Osteguna 19: 19:00

## OLAZTI

## KULTUR ETXEA

*Onward* filmaren proiektzioa  
Igandea 15: 17:00

mendebaldeko elkartasun maratoia.  
09:00etan, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Udazkena Sakanan. Gure ibilbideak ezagutuz: *Shinrin Yoku Baso* bainua. Ibilbide gidatua eta dastaketa.

10 euro. Izena ematea: [goazenbidaiak@gmail.com](mailto:goazenbidaiak@gmail.com) edo 650 023 687.  
10:00etan, kanpian.

**OLAZTI** Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. *Haiengandik, guztiongandik.* Berdintasunaren aldeko escape rooma. Txandaka.  
10:30etik 15:00etara, kultur etxean.

**IRURTZUN** Folk ametsetan: Feten Feten taldearen kontzertua.  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU** Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 16

**ALTSASU** Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.  
12:00etan, udaletxearen parean.

**OLAZTI** Itzal titere laborategia. 6 urtetik aurrera.  
Izena ematea: 948564858.  
17:00etan, liburutegian.

**SAKANA** Era eskola. Gurasoentzako trebakuntza online: Gure seme-alabei euskararekin eta hizkuntzekin laguntzearen erronka.  
Hizlaria: Iñaki Eizmendi.  
16:00etan euskaraz, 18:00etan gaztelaniaz; [youtube.com/c/eranafarroa](https://www.youtube.com/c/eranafarroa).

## ASTEARTEA 17

**LAKUNTZA** Hezkidetzan hezi berdintasunean bizi hitzaldi zikloa: Ipuin parekideak.

10 euro. Izena ematea: [edukanatura@gmail.com](mailto:edukanatura@gmail.com), 616145686 edo 644555328.  
10:00etan, plazatik.

**OLAZTI** Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna. *Haiengandik, guztiongandik.* Berdintasunaren aldeko escape rooma. Txandaka.  
10:30etik 15:00etara, kultur etxean.

**ALTSASU** Gazte agendan: *Amodio onak, amodio txarrak.*  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ARBIZU** Mikel Reparaz kazetariaren *Las grietas de America* liburuaren aurkezpena Pello Urzelaik aurkeztuta.  
19:00etan, udaletxearen batzar gelan.

**ALTSASU** *Un poyo rojo* ikuskizunaren emanaldia.  
19:30ean, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 15

**BAKAIKU** Paris 365

## EUSKARALDIA

## OSTIRALA 13

**ARBIZU** Izena ematea eta txapa banaketa.  
18:30etik 20:00etara, udaletxearen batzar aretoan.

**ALTSASU** Izena ematea eta txapa banaketa.  
19:30etik 20:30era, Gure Etxea eraikinean.

## LARUNBATA 14

**UHARTE ARAKIL** Izena ematea eta txapa banaketa.  
11:30etik 13:30era, plazan.

## IGANDEA 15

**ALTSASU** Izena ematea eta txapa banaketa.  
11:30etik 13:30era, San Juan plazan.

**IRURTZUN/ARAKIL** Izena ematea eta txapa banaketa.  
12:00etatik 14:00etara, plazan.

**ETXARRI ARANATZ** Izena ematea eta txapa banaketa.  
12:30etik 14:00etara, plazan.

**LIZARRAGA** Izena ematea eta txapa banaketa.  
13:00etatik 14:30era, frontoian.

**ALTSASU** Izena ematea eta txapa banaketa.  
13:00etatik 14:30era, Gure Etxea eraikinean.

## ASTEARTEA 17

**ETXARRI ARANATZ** Izena ematea eta txapa banaketa.  
11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 19:30era, udaletxearen 2. solairuan.

## ASTEAZKENA 18

**ETXARRI ARANATZ** Izena ematea eta txapa banaketa.  
11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 19:30era, udaletxearen 2. solairuan.

**BAZKIDE ZOZKETA**  
AZAROKO SARIAK

**1. SARIA:**  
EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera  
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua  
LACTURALE: Esneki lotea  
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan  
EREIN: Argitaletxearen liburu bat

**2., 3. ETA 4. SARIAK:**  
DONOSTIAKO AGUARIUMA: 2 sarrera  
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua  
LACTURALE: Esneki lotea  
EREIN: Argitaletxearen liburu bana

**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • [www.dekovennavarra.com](http://www.dekovennavarra.com)  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860





ESKELA



**Norberto Lopez de Goikoetxea Galartza**  
'Norways'



"Zure parrak beti gure oroimenean"

**Bakaikuko zure lagunak**  
2020ko azaroaren 11ean

ESKELA



**Norberto Lopez de Goikoetxea Galartza**



**Aitzkozar elkarteko kide eta lagunak**

ESKELA



**Norberto Lopez de Goikoetxea Galartza**  
Iturmendiko Udaleko zinegotzi ohia

Zure nortasunak gure artean jarraituko du



**Iturmendiko Udal**  
Iturmendin, 2020ko azaroaren 11n

Emaleak: Ilazki Gainza eta Nerea Uri. Izena ematea: [berdintasuna@sakanamank.eus](mailto:berdintasuna@sakanamank.eus). 17:00etatik 19:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

## ASTEAZKENA 18

**ALTSASU Osasun etxea zaindu! Nafarroako Osasun Plataformaren elkarretaratzea.**

11:00etan, osasun etxearen aurrean.

**SAKANA Era eskola. Gurasoentzako trebakuntza online: Seme-alaben autonomia, motibazioa eta autoestimua sustatzen.**

Hizlaria: Nerea Mendizabal.

16:00etan euskaraz, 18:00etan gaztelaniaz; [youtube.com/c/eranafarroa](https://www.youtube.com/c/eranafarroa).

**ETXARRI ARANATZ Mikel Reparaz kazetariaren Las grietas de America liburuen aurkezpena.**

19:00etan, liburutegian.

## EGUNERO

**ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU**

**Txikito gose eta egarri graba mugagabeen independentziaren eta sozialismoaren alde.**

Amnistiaren aldeko eta Errepresioaren aurkako Mugimenduak deitutako kontzentrazioak.

19:15ean, Etxarri Aranazko plazan; 20:00etan, Altsasuko udaletxe parean.

## JAIOTZAK

- **June eta Naïke Valencia Renedo**, azaroaren 3an Altsasun

## HERIOTZAK

- **Consuelo Mendinueta Lakuntza**, azaroaren 6an Arbizun
- **Norberto Lopez de Goikoetxea Galartza**, azaroaren 10ean Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

**ERRENTAN HARTU**  
Sakanan, gutxienez 3 metroko altuera duen baxera baten bila gabiltza, errentan hartzeko, Lakuntza inguruan bada hobe. Amaia 616 554 180. Milesker.

**LEHIAKETA**  
**Irurtzungo I. Argazki-lehiaketa:** Irurtzungo Udala antolatuta, 16 urtetik gorako pertsona guztiak parte hartu dezakete. Aukeraturako argazkiak egutegia egiteko erabiliko dira. Bi gai: 1.) Paisaiak eta ondarea 2.) Jai eta kultur ekitaldiak Irurtzunen. Lanak aurkezteko eguna azaroaren 16an izango da [argazkia-irurtzun@gmail.com](mailto:argazkia-irurtzun@gmail.com) helbidera edo USB batean kultur etxean entregatuta. Informazio osoa: [www.irurtzun.eus](http://www.irurtzun.eus) webgunean.

**Atsotitz Lehiaketa:** parte hartzaileek atsotitz bat irudi batean bertatuta aurkeztu behar dute. Somena ere landu nahi denez, esaera berriak sotzeko aukera dago. Gehienez 3 aurkeztu daitezke. Abenduaren 31 baino lehen hona bidali: 656 303 767 edo . Bi taldek bozkaturako dute: batetik, irudigintza eta euskara arloko 5 epaimahaiakidex osatutako taldeak, eta bestetik nahi duten guztiak Telegramen talde honetan bozkatzeko aukera dute: urtarrilaren 5etik 31ra. Emaizta otsailan, saria 100 euro. Informazio gehiago eta antolatzaileen webgunetan.

**OHARRAK**  
**Odol emateak Etxarri Aranatz:** Azaroaren 18an, 17:00etatik 20:30ra. [www.adona.eus](http://www.adona.eus).

**Intxostiapuntako ordutegiak:** Gaztegunea asteleheneetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik - 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea asteleheneetik ostiralera 07:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 07:30tik 12:00etara eta 17:00etatik - 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, [intxostiapunta@altsasu.net](mailto:intxostiapunta@altsasu.net) + [gazteria@altsasu.net](http://gazteria@altsasu.net).

**Altsasuko Txantxari ludoteka:** Izena ematea Ludotekan bertan. Ezeztapenak urriaren 30 arte. Ordutegiak: 2012-2008 (astelehen, asteazken eta ostiralean 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (asteleheneetik

ostiralera 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehena, asteazken eta ostiralean 18:30-20:00). Aurtun 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiek izena eman behar dute talde egonkorak sortzeko helbururarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / [ludoteka@altsasu.net](http://ludoteka@altsasu.net).

**Arropa bilketa:** Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenean, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskararekin sartzera.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## OROIGARRIA



## Mikel Arregi Marin

XXXXI. urteurrena

Egiaren bidean,  
askatasuna amets!

**Lakuntzako Ezker Abertzalea**  
2020ko azaroaren 11n



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)





Jokin Altuna eta Joseba Ezkurdiak aurkeztutako materialarekin konforme azaldu ziren. ASPE

## Final zaporea duen final laurdena

**PILOTA** Joseba Ezkurdiak Jokin Altuna izanen du aurkari Buruz Buruko final laurdenean igandean Astelenan (17:00, ETB1). Bi pilotariak sasoitsu eta joko onarekin heldu dira txapelketara eta partida oso estua espero da

Joseba Ezkurdiak Lau eta erdiko bi txapela –2018an eta 2019an– eta Binakako txapel bat –2018an, Zabaletarekin– ditu bere bitrinen, baina orain arte Buruz Buruko txapela ez du jartzerik izan. Joan den urtean Buruz Buruko finalerdietan erori zen Mikel Urrutikoetxearen kontra, eta zapora txarrarekin utzi zuen txapelketa.

Aurten Buruz Burukoan lan ona egin nahi du Ezkurdiak, baina aitortu beharra dago txapelketako zozketan ez zuela zortea alde izan, Jokin Altunaren multzoan egotea egokitu baitzaio. Biak multzo berean egoteak txapelketari nolabaiteko dirdira kendu dio, baina zortea halakoa da. Horrela, Ezkurdiak eta Altunak igandean jokatu dute final zaporea duen final laurdena, Eibarko Astelenan (17:00, ETB1).

Partida estua eta gogorra izango dela ez dago zalantzarik. Biak sasoi betean iritsi dira partidara, sentsazio eta joko onarekin. Biak ala biak gogorrak dira, eta sorpresa handia gertatzen ez bada

paretsu joango da lehia. Jokoa dagoena handia da, Buruz Buruko finalerdietara sailkatzea, eta igandean hutsik egongo den Astelenan ez da emozioa faltako.

### Ezkurdiak: "Errematearekin min handia egiten du Altunak"

Bi pilotariak atzo aukeratu zuten materiala. Ezkurdiak adierazi zuenez, Buruz Burukoari ekiteko "gogotsu" dago. Entrenamendu onak egin dituela gaineratu zuen arbizuarrak, eta sentsazioak onak direla. Altuna arerio oso latza dela jakitun da. "Altuna une onean iritsi da txapelketara, pilota ongi ateratzen zaio eskue-tatik eta errematearekin min handia egiten du. Horregatik nire jokoa oso ondo egin beharko

**"ERREGULAR ARITU BEHARKO NAIZ, XEHETASUNEK LEHIA ERABAKI DEZAKETELAKO" JOSEBA EZKURDIA**

dut, hori baita partida irabazteko aukera bakarra. Erregular aritu beharko naiz, xehetasun txikiek partida erabaki dezaketelako".

### Altuna: "Ezkurdiak arerio latza da"

Altunak azaldu zuen oso gustukoak izan zituela bai bere pilotak eta baita Josebarekin ere. Ezkurdiak ez dela arerio erraza nabarmendu zuen. "Ezkurdiak asko jokatzeko ari da modalitate guztietan. Arerio latza da. Izugarri ateratzen du, eta sarea bereganatzen badu tanto takada egiten du. Ongi aritu beharko naiz".

### Beste final laurdenak

Gaur, ostirala, Iker Irribarriak Dario Gomez izango du aurkari Irungo Urantzun; bihar, larunbata, aurreko astean Joanes Bakalkoa kanpo utzi zuen Erik Jaka eta Mikel Urrutikoetxea lehiatuko dira Bilboko Bizkaian; eta, igandean, Eibarko Astelenako beste partidaren, Danel Elezkanok eta Asier Agirre ariko dira.



2019an probako sortzaileak omendu zituzten, Riezu, Arnanz, eta L. de Goikoetxea.

## Zubeztiako lasterketa, erori den beste proba bat

**ATLETISMOA** Zubeztia elkarteak abenduaren 8an jokatu beharreko Barricarte Memoriala 2021era atzeratu du

COVID10 birusak sortutako pandemiak beste biktima bat du. Altsasuko Zubeztia elkarteak urtero abenduaren 8an antolatzen duen lasterketa bertan behera utzi behar izan du, pandemiagatik. Aurten 40. Oinezko Lasterketa edo 37. Alberto Barricarte Memoriala zen jokatzekoa, baina urte bukaerako San Silvestrea prestatzeko ezinbestekoa zen proba herrikoia datorren urtera, 2021era atzeratu behar izan du antolakuntzak. Ez dira ez bata ez bestea jokatu.

"Zubeztiako Zuzendaritza Batzardeak 2020ko Oinezko Laster-

keta-Alberto Barricarte Memoriala bertan behera uztea erabaki du, parte hartuko dutenen segurtasun osoa bermatzea ezinezkoa baita" dio Zubeztia elkarteak zabalduetako oharra. Bide batez, elkarteak pandemiako gaixoak eta biktimak izan ditu gogoan. "Besarkada handi bat bidali nahi diegu, eta espero dugu normaltasun osoz ospatu ahal izatea 2021eko lasterketa".

2019an 166 korrikalarik hartu zuten parte Zubeztiako proban eta Antonio Etxeberrria (31:52) eta Izaskun Beunza (37:42) izan ziren azkarrenak.



MOVISTAR TEAM

## Erbiti eta Arrieta, podiumean

**TXIRRINDULARITZA** Primoz Roglicek (Jumbo) irabazitako Vueltan Imanol Erbiti eta Jose Luis Arrieta podiumera igo ziren, Movistar Team taldea izan zelako Vueltako talderik onena. Erbitik eta Gorka Izagirrek (Astana) lan bikaina egin dute eta orain merezitako atsedena hartzen ari dira. Egunotan Gorka Izagirrek Astanarekin kontratua berri du.





Korrikalariak Bakaikun. ARTXIBOA

## ATLETISMOA Paris 365 maratoi solidarioko adar bat, Bakaikutik

Paris 365 jantoki sozialaren aldeko elkartean maratoiak antolatzen ditu Berriozarko Korrika Taldeak igandean. Lau adar aterako dira, goizeko 9:00etan, eta Berriozarko Euskal Herria plazan egingo dute bat, 13:15ean. Mendebaldekoa Bakaikutik aterako da. Helburua 168 kilo elikagai jasotzea da, egingo diren kilometroak bezainbeste, Paris 365 jantokiko biltegirako.

## ARETO FOTBOLA Xota Peñiscolaren kontra akatsak konpontzera

Asteazkenean Osasuna Magna Xotak Barça hartu zuen Anaitasunan. Garaipena zer den ezagutu gabe etorri ziren kataluniarak, baina hiru puntuak eskuratu zituzten (2 eta 4). Izan ere, talde berdeak garesti ordaindu zituen egindako akatsak.

Arbitroen erabakiak Imanol Arregi bere onetik atera zuten eta partidaren azken minutuan aldageletara bidali zuten teknikari irurtzundarra. "Arbitrajea alde batera utzita, guk galdu dugu partida. Lehen zatian bi akats puntualen ondoren jaso ditugu golak; bestalde, partida guztian gola sartzeko makina bat aukera izan ditugu eta ez dugu atean asmatu; Barça bezalako talde baten kontra ezin duzu hori egin, partida galtzen duzula" nabarmendu zuen.

Levante da 1. mailako liderra (18 puntu) eta Osasuna Magna 8. da (9 puntu). Larunbatean 13 punturekin sailkapenean 3. den Peñiscola izango dute aurkari irurtzundarrekin, 18:00etan.



Jon Irañeta 113 kiloko kubikoarekin lanean, larunbatean, Mikel Lasarte laguntzaile duela. UTZITAKOAK

# Marka hobetuta, txapelari eutsi dio Jon Irañetak

**HARRI JASOTZEA** Larunbatean Irurtzunen jokaturako Nafarroako Harri Jasotze Txapelketa irabazi zuen Egierretako harri jasotzaileak, 52 altxalditan 5.887,5 kilo jasota. Alvaro Zugarrondori 800 kiloko aldea atera zion

**Maidar Betelu Ganboa** EGIARRETA

Larunbatean Nafarroako Harri Jasotze Txapelketa eta Nafarroako Gizonezkoen Txinga Erute Txapelketa jokatu ziren Irurtzungen pilotalekuan. Pandemia dela eta, atek itxita jokatu ziren bi txapelketak, eta zaletuen giroa asko bota zen faltan. 23 urteko Jon Irañeta gazte egierretarrak iazko txapela defendatu zuen eta lanak oso ongi egin zituen, aurreko marka ontzea eta txapelari eustea lortu baitzuen.

Jon Irañeta eta Alvaro Zugarrondo aritu ziren Nafarroako Txapelketan. Josetxo Urrutia lehiatzen zen, baina ez zen plazan agertu. "Pena izan zen, harri jasotzaile gehiagorekin gusturago ibiltzen zarelako, baina Josetxok mina hartu zuen azkeneko lehiaketan eta ez zen atera" azaldu du Irañetak.

**Markak nabarmen onera**

Aurreko astean Jon Irañetak aipatu zuen joan den urteko denboraldiarekin alderatuta,

aurten ez zela pisu zenbakietan diferentzia handirik egongo, pandemia dela eta urte arraroa izan delako eta ez dutelako apenas erakustaldirik ez txapelketarik izan. Baina Egierretako guztiz okertuta zegoen, berak eta baita Alvaro Zugarrondok ere aurreko urteko markak ondu zituztelako.

2019an 47 altxalditan 5.337,5 kilo jasota lortu zuen txapela Jon Irañetak, eta larunbatean, 52 altxalditan 5.887,5 kilo jaso zituen (125 kiloko zilindroari 20 altxaldi, 113 kiloko kubikoari 15 eta 100 kiloko bolari 17), aurreko urtean baino 500 kilo gehiago. Alvaro Zugarrondok 4.537,5 kilo jaso zituen guztira larunbatean, 40 altxalditan (zilindroari 16 altxaldi, kubikoari 11 eta bolari 13), aurreko urtean baino 900 kilo gehiago. "Egia da, aurten gora egin dugu. Agian gogo askorekin hartu genuen plazan lehiatzeko aukera. Nire kasuan, gustuz hartu nuen. Normalean sanferminetan jokatzen da Na-

farroako Harri Jasotze Txapelketa, eta aurten frontoi itxi batean aritzea ezberdina izan zen. Ez zegoen sanferminetako berorik ez eguzkirik... erosoago ibili nintzen frontoian, zentratuago ikusi nuen neure burua, oso gustura" aitortu zuen Egierretako harri jasotzaileak.

Alvaro Zugarrondok ere bere lana izugarri hobetu zuen. "Lan polita egin zuen Alvarok, iaz baino 900 kilo gehiago jaso zituen" azaldu zuen Irañetak. Hala ere, Egierretako gazteak 800 kilo atera zizkion Zugarrondori eta bigarren urtez Nafarroako harri jasotze txapelduna izanen da. "Pozik nago. Honek lasaitasuna ematen dit datorren denboraldirako" gaineratu du. Gurasoekin

**"HARRI JASOTZEAN JARRAITZEKO GOGOZ NAGO; EUSKAL HERRIKOAK PRESTATU NAHI DUT" JON IRAÑETA**

ospatu zuen txapela, etxean, "arauak betez".

Txapelketa publikorik gabe jokatu zen. "Arraroa egin zen frontoi hutsean aritzea, baina giroa ez zen horren hotza izan, Nafarroako Txinga Erute Txapelketan aritu zirenak han zeudelako, epaileak, laguntzaileak... azkenean espero baino giro gehiago egon zen" aipatu du Irañetak.

**Txapela, Sakanako eskolara**

Jonek Sakanako Harri Jasotze Eskolako Mikel Lasarte izan zuen laguntzaile. "Mikel ere pozik zegoen; urte osoan nirekin entrenatzen egoten da, eta markak hobetu eta txapela eskolara ekarztearekin oso pozik zegoen" nabarmendu du Irañetak.

**Erronka, Euskal Herrikoa**

Egierretarrak 23 urte ditu eta tarte handia du hobetzeko. "Gauzak ongi, urteak baditut hobetzeko, eta harri jasotzean jarraitzeko gogoz nago" dio. Nafarroako bigarren txapela lortu du jarraian, eta Euskal Herrikoan parte hartzeko saltoa egingo du. "Gogotsu nago datorren urtean Euskal Herrikoan eta beste edozein txapelketetan parte hartzeko. Prest nago zenbaki onak atera eta bertan aritzeko. Gutxienez Euskal Herriko Txapelketa prestatzea izango da datorren urteko helburua, zenbaki polit batzuk uztea" gaineratu du. Hori bai, jende aurrean aritzea nahiago luke. "Beti politagoa da zaleen aurrean aritzea". Birtartean, Urrezko Harri jasotzailearen Txapelketan jarraituko du, Urdax Magunazelaiarekin bikotea osatuta.

**Txingetan Saldias txapeldun**

Nafarroako Gizonezkoen Txinga-Erute Txapelketari dagokionez, 6 txingalari aritu ziren Irurtzunen, 50 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egiteko lanean. Daniel Saldias arraioztarra izan zen txapelduna, alde handiarekin, 17 plaza eta 2,85m osatu eta gero.

**Iban Resano Urrezko Aizkolari Kopatik kanpo**

Igandean Urrezko Aizkolari Kopako 2. kanporaketa jokatu zen Maetzun. Lau aizkolari aritu ziren: Iban Resano dorrobarra, Julen Olano, Suhari Rodriguez eta Luis Txapartegi. Iban Resano ez zen azken fasera sailkatu, eta kopatik kanpo geratu da. Julen Olanok egin du aurrera.



# Chejoven lanaren berrinterpretazioa

Victoria Alvarez Musetti olaztiarrak 'Todo está allí' antzezlanaren idatzi du. Anton Chejov idazlearen 'Las tres hermanas' lanaren moldaketa da, eta otsailean Asturiasko El Cuervo antzerki konpainiak taularatuko du

## Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

1901eko urtarrilaren 31ean Konstantin Stanislavski antzerkigileak Anton Chejov idazle errusiarraren *Las tres hermanas* antzezlanaren mustu zuen Moskuko Artearen Antzokian. 100 urte beranduago, dena ongi badoa, Xixonen, Victoria Alvarez Musetti idazle olaztiarraren *Todo está allí* antzezlanaren mustuko du Sergio Gayol antzerkigilearen El Cuervo antzerki konpainiak. Alvarez, Chejoven lanean oinarritu da bere bertsoa egiteko. Oinarrian *Las tres hermanas* dagoen arren, antzezlan berri bat sortu du olaztiarrak. Urriaren 24an Tdiferencia antzerki taldeak antolatutako *Una dirección propia. La mujer y la escena* topaketan parte hartu zuen, eta antzezlanaren irakurketa dramatizatu egin zuten. "Oso esperientzia polita izan zen".

Alvarez Sormenezko literatura eta idazketa ikasketak egiten ari da Nafarroako Unibertsitatean, eta iaz *Iruñeko Zirrikituak* arte eszenikoen jaialdian praktikak egin zituen. Bertan Sergio Gayol El Curvo antzerki konpainiako zuzendaria ezagutu zuen. "Nik idatzitako ipuin bat erakusteko esan zidan bazekielako idazketan interesatuta nengoela. Irakurri zuen, eta lan hau egitea proposatu zidan". Idazle gazteak aurretik ez zuen obra ezagutzen, "baina lehenengo aldiz irakurri nuenean gustoko nuela ohartzeko arrazoi pila bat aurkitu nituen". Besteak beste, egunerokotasuneko gaiak jorratzen ditu, baita "ametsen" buruzkoak ere: "Nola bizitzakegon nahi ez duzun toki eta garai batean harrapatzen zaituen". Horiei buruz hitz egiteko gogoa zuen Alvarezk.

Chejoven *Las tres hermanas* lanaren protagonistak hiru ahizpa eta anai bat dira. Errusiako probintzia bateko hiri batean bizi dira eta aita duela urte bat hil zaie. Umeak zirenean Moskun bizi ziren eta itzultzearekin amesten dute



Victoria Alvarez Musetti olaztiarra. UTZITAKOIA

bizi diren hiria txikia delako. "Irakurketa idealizatzen dute, baita etorkizuna ere. Baina inoiz ez dute bertatik ateratzeko urratsa ematen. Agian ez direlako gehiegi saiatzuten ere". Garaiko Errusiaren egoeraz hitz egiten du, "baina hori alde batera utzi dugu". Hortaz, *Todo está allí* antzezlanaren idazteko Alvarez gertuago duen kultura kontestuan batean oinarritu da: "1950ko hamarkadako Argentinan pentsatu genuen. Espainiako Gerratik exiliatutako familia bat da protagonista". Chejoven lanean bezala etxera itzuli nahi dute, beren aita hil ondoren. "Bi ahizpa eta anai bat dira. Mutilak musikaria izan nahi du, baina azkenean funtzionario bihurtzen da. Txikiak idazle izan nahi du, baina ez du lortzen eta emakumea izateak ez du laguntzen. Eta helduenak mai-

temindu nahi du, baina denbora pasatzen ari da eta ez du lortzen". Bizitzaz hitz egiten du lanak; egunerokotasunaz.

## Lehenengo antzezlanaren

Alvarezk idazten duen lehenengo antzezlanaren da. "Hasieran beldurra ematen zidan. Antzerkia asko interesatzen zait, baina hutsetik hasten nintzen". Idatzi aurretik Chejoven lana irakurri zuen eta barneratu zuen. Ondoren, zertaz hitz egin zezakeen begiratu zuen. "Gauza batzuk garai horretan oso garrantzitsuak ziren, baina gaur egun ez dira garrantzitsuak". Hasieran idazle imitatze-ko joera izan zuela aitortu du Alvarezk. "Sergiok asko lagundu dit eta esan zidan nire hitzak irakurri nahi zituela". Pixkanaka bere ikuspuntua eta "ahotsa" sar-

tzen hasi zen. "Obran ikusten da. Hasieran lanak originalaren antza gehiago dauka, gero pertsonaiak garatu ditudala ikusten da. Eta forma aldetik ere desberdina da".

"Desberdintasun handiena izan da imajinatu behar nuela nola mugituko ziren pertsonaiak agertokian". Gainera, idazle pertsonaia bakar baten ikuspuntutik kontatzera ohituta zegoen, eta antzerkian "guztien ikuspuntuak" hartu behar dira kontuan, "elkarriketen bidez". Dibertigarria izan dela aitortu du Alvarezk. "Bazirudien haiek ni mugitzen nindutela, bizitza hartzen zutela". Antzokian eszena bat ikusten arituko balitz bezala irudikatzen zuen lana idazteko orduan.

## Proba

Publikoak antzezlanari egiten zion harrera ikusteko lehenengo

aukera urrian izan zuen egindako *Una dirección propia* topagunetaren. "Oso hunkigarria izan zen. Lana oso dramatiko da eta pertsonaiak oso sakonak dira". Jendea hunkituta atera zela esan du idazleak. "Pixka bat arindu behar dela pentsatu nuen. Dramatikoezia da; egunerokotasunean umorea ere badago". Mustutze ofiziala otsailean izatea aurreikusten du olaztiarrak: "Asturiasen izanen da". Momentuz antzezlanaren prestatzen eta lantzen ari dira. "Originala nahiko mantentzen ari dira. Nire eginkizuna izan da begiratzea paperetik eszenara ongi moldatzen den eta fintzen joatea".

Idazten duen lehenengoa izatea baino ez du espero Alvarezk, izan ere, antzerkia asko gustatzen zaiola esan du. Gainera, narrazio laburren liburu bat argitaratzea aurreikusten du ere.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

## Nola zaindu aurpegiko azala maskara eramaten

Higiene maskarak ezinbesteko osagarriak bihurtu dira azken aldi honetan eta luzerako doala dirudi. Gure osasuna eta besteena zaintzen du, baina ez gure azala; beraz, gure tratamendua egokitu behar dugu gorritasunak eta pikortxoak saihesteko.

### Aurpegia garbitzeko

**xaboa:** Garbitasuna, orain eta beti, ezinbesteko urratsa da, baina orain garbitzaile hori suabea izan behar da, azala lehorra eta tiranteago dagoelako.

### Krema hidratatzailea:

Agian azken aldi honetan nabarmendu duzu zure betiko krema motz gelditu zaizula, gure epidermisak ezin duelako bere lan naturala bete. Erosteke beharretan bazaude, gehiago hidratatzen duen bat aukeratu edo baselina pixka bat ipini maskarekin kontaktuan dagoen aurpegi zatian.

**Eguzki babeslea:** Hau ere ezin da inoiz falta, baina bereziki orain azala sentikorrago baitago eta hau barrera ezin hobea da.

**Uretarako orea:** Produktu honek film babesle bat sortzen

du, oso arina da. Marruskadurei eta hezetan aurre hartzeko aproposa, bere osagaiei esker (aloe vera eta kalendula olioak). Pasta mota honek propietate lasaigarri, hidratatzaile eta konpontzaileak ditu.

**Makillajea:** Hoberena da produktu hau ez erabiltzea, gehien bat maskara zikintzen delako eta honek horren funtzioak ekidin dezake. Fluido bada askoz hobea.

### Ezpainetako babeslea:

Ezpainak ere egun hauetan asko lehortzen dira, eta bereziki zaindu behar ditugu. Maiztasunez hidratatu behar ditugu.

**Tonikoa:** Esan dudanez bezala, azala oso sentikorra dago, babestu eta baretu behar da. Beraz, toniko egokia erabiliz hidratatu eta barrera funtzioa egonkortzen du.

### Gaueko maskarilla:

Egunean zehar faltan bota dugun hidratazio gehigarri hori emateko.

Masailezurra, sudurra eta kokotsa kaltetuta badaude, hidratatzaile bat erabil dezakegu, pomada bat erabil dezakegu zonalde horretan.





Irati Urrestarazu altsasuarraren 'Albo batera utziz' erakusketa. UTZITAKOA

# Akuarela batean sartzea bezala

Irati Urrestarazu altsasuarrak 'Albo batera utziz' erakusketa mustu du Bilbaoarte fundazioaren aretoan. Materialekin duen "borroka" batetik sortutako prozesuak osatzen du artistaren instalazio berria

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU  
2019. urtean Bilbaoarte fundazioaren erresidentzia beka lortu zuen Irati Urrestarazu artistak, 18 artista gazterekin batera. Urte batez artea egiteko eta sortzeko aukera izan zuten artista beka-dunek, eta, urte amaieran erakusketa txiki batean lan horiek aurkeztu zituzten, eta Urrestarazuren obra erakusketa indibiduala egiteko hautatuetakoa bat izan zen. Erresidentzia horretan hasitakoaren "jarraipena" aurkeztu zuen, beraz, urriaren 16an Bilbaoarte fundazioaren aretoan: *Albo batera utziz*. "Zerbait desberdina da, baina nabaritzen da bestearen bidetik datorrela. Jarraikortasun hori ikusten da".

Urrestarazuk ez du proiektu "itxiekina" lan egiten. "Prozesuekin lan egiten dut; lan egiteko orduan metodologia desberdinak sortuz". Bere lanean etengabeko

"jarraikortasun" bat dagoela esan du artistak. Bere lanean metodologian eta prozesuan garapen bat ikusten da. "Beti daukat begirunea materialetan, gehien bat beraien portaeretan. Gustatzen zait ikustea material bakoitzak nik behartzen ditudan egoera desberdinetan nola erantzuten duen". Artistaren eta materialaren arteko "negoziazio" bat da. "Materiala bere ahalmen guztira eramaten dut, eta bere izaerara itzultzeko prozesuan sortzen denarekin aritzen naiz. Negoziazio hori ematen da". Materialak zer ematen duen.

## Artista vs. materiala

Borroka bat ere bada. "Aurreko erakusketarako erresinarekin probatzen hasi nintzen. Akrilikoa erabili nuen gehien bat, eta poliester erresinarekin probatzen hasi nintzen". Urrestarazuk ez

zuen materiala ezagutzen eta "mila istripu" izan zituen, esaterako, lurra garbitzen hiru egunez egon zela aitortu du. Baina horregatik ere material hori "bonba" bat zela konturatu zen. Hor-taz, proiektu honetarako materialarekin probak egiten hasi zen, eta erresina xafla handi batzuk sortu zituen. "Lodiera desberdinak ematen, tolesten... konturatu nintzen indar asko zuela bere onera itzultzeko baina gero toki batean guztiz leuna utzi eta astebetara tolestuta zegoen". Tenperaturaren eraginaren ondorioak ikusi zituen. "Horren arabera formak egiten hasi nintzen, tolestuz, eta ordura arte erreparatu ez nion gardentasunari garrantzia ematen hasi nintzen". Erresina xaflek sortzen duten gardentasuna lehenasunezko elementua bihurtu zen instalazioan: "Bata bestearen

atzean erakusten duena edo ez ikusten duena".

Erresina "sorpresa handia" izan dela esan du Urrestarazuk. Baina ez da *Albo batera utziz* erakusketarako erabili duen material bakarra. Kolore horiak presentzia handia du. "Hainbat koloretako lonak bilatu nituen, eta erotu nintzen. Obra batean urdin koloreko lona bat ikusi nuen, eta ez nuen inon topatzen. Beste bat ekarri zidaten, baina ez zitzaidan gustatzen. Azkenean, kolore desberdinak ekartzeko eskatu nuen". Tartean, horia zegoen. "Ez nuen aurretik pentsatu". Lagun batek "zakarra" zela esan zion, eta lona hori horri forma ematen hasi zen. "Zortea daukat nahiko estudio handia dudalako, orduan, piezak instalazioan bezala mugitzeko aukera izan dut". Hala ere, estudiantik erakusketa aretora aldaketak daudela azaldu du: "Estudioan kontrastea handiagoa zen, erakusketan ez dakit argiagatik izan den edo, baina ezberdin gelditzen da". Oso girotua gelditzen dela aipatu du.

## Akuarela

Gorputzak eskatzen zidan kolore horia erabiltzea. "Hainbeste kolore dituzunean zalantzak sortzen dira, baina badago puntu bat non gorputzak eskatzen dizun". Aurreko erakusketan kolore biziak erabili zituen, indartsuak, eta honetan "beste zer edo zer" egin behar zuen. "Batuetan tentsio hori sortzeko beharra sortzen da, baina honetarako ez nuen hori bilatzen". Lanean ari denean "tentsio" horretara iristea gustatzen zaio artistari, "ea nork ematen duen amore lehenago". Ate irekiak egin behar zituenean hasi zen Urrestarazuren eta materialen arteko tentsioa edo borroka hori: "Goma batekin ari nintzen lanean eta forma bat eman nion, baina ez zegoen modurik. Azkenean tubo antzeko bat egin nuen. Amore eman nuen, berak irabazi zuen. Baina sortutako egoera hori gustatu zitzaidan".

"Nik ez dut ezer kontatu nahi. Nire erakusketan sartzean gozatu duzun edo ez, hori da kontua".

## "NIRE ERAKUSKETAN SARTZEAN GOZATZEN DUZUN EDO EZ, HORI DA KONTUA"

IRATI URRESTARAZU

Aurreko erakusketan, esaterako, koloreak ez zuen gainean zeuden eskulturak eta formak ikusten uzten, "eta hor tentsioa sortzen zen". Uharteko Arte Garaikideko Zentroan tentsio hori "lasaitu" zuela azaldu du Urrestarazuk. *Albo batera utziz* erakusketa "akuarela batean sartzea bezala" dela esan zion lagun batek. "Lona handi bat jarri dut eta horrek atzeko ikusten uzten du". Edo ez. "Gauzak oso konektatuta daude eta margo batean sartzea, eskulturaren galtzea edo aire ponpa baten barruan egotea bezala da". Urrestarazuren estiloa da. "Klasikoa naiz horretan. Formari ematen diot garrantzia, esperientziari, gaiari baino".

## Egoera berezia

Erakusketa egiteaz "eskertuta" dago Urrestarazu. Erakusketarekin gozatzeko aukera eman dio COVID-19 birusak sortutako egoerak. Baina "gauza gehiago" ez direla ateratzen aitortu du ere artistak. "Erakusketak eta ekimenak atzeratzen ari dira. Oke-lan ere ekainerako programatuta genituen batzuk oraindik ezin izan ditugu egin". Egoera desegonkorra dela esan du. Dena dela, gaur bertan erakusketa bat mus-tuko dute, "baina hurrengoak kolokan ditugu".

Konfinamendua "ilusioarekin" hartu zuela esan du artistak. "Estudioan bakarrik lanean egiteko" aukera bezala ikusi zuen. Baina, aitortu duenez, eta beste artista askorekin kontrastatu ahal izan duenez, "estudiora joaten nintzen eta ez nuen sormenik". Egitura aldaketa "hain indartsua" izan zenez, erdi "hutseratuta" gelditu zirela azaldu du.

Etorkizunari begira "gauzak mugitzen" ari dira. Baina "aurrekontuetan kulturari kendu diote ahal izan duten guztia eta hainbat proiektu bertan behera gelditu dira". Aurtengo dirulaguntzak iristen ari direla azaldu du, aurreko aurrekontuetan hitzartutakoak direlako. "Aurrera begira ez dakigu. Hurrengo urtean edo hurrengoan ikusiko dugu zeintzuk diren gobernuen eta udalen apustuak". Kulturari ez zaiola dagokion garrantzia ematen esan du Urrestarazuk, "beti beldur gara". Arte plastikoaren munduan daudenak "zorte" gehiago dutela esan du, egoera honetan erakusketak egiteko antzerkiak edo kontzertuak egiteko aukera gehiago dagoelako.



# "Escape Roomean denboran atzera egingo dugu"

Tramankuluk Berdintasunaren Aldeko Escape Rooma prestatu du Olaztiko Kultur Etxean. Denboran atzera egin, emakumeen papera aztertu eta proposatutako kodeak argitu eta gero, egungo garaira helduko gara. Ongi pasatzera gonbidatu gaitu Igor Lanzek

Eneida C. eta Maider B. SATRUSTEGI

## 1 Satrustegiko Tramankulu enpresak antolatu du asteburuan Olaztin eskainiko den Berdintasunaren Aldeko Escape Rooma.

Bikoteak eta nik osatu genuen Tramankulu eta orain dela 10 urte hasi ginen lanean Sakanan, haurrentako ingelesezko tailerrek eskaintzen. Segidan, herrizherri jolasak, tailerrek eta ginkanak eskaintzen hasi ginen. Jolas kooperatiboak dira, ez dago lehiaketarik eta berdintasuna sustatzen dute. Eta ondoren escape roomak ere prestatzen hasi ginen.

## 2 Zer da escape room bat?

Areto itxi batean egiten den ginkana antzeko bat, adin guztiendako. Jolas kooperatibo bat da. Taldea gela baten barruan itxita dago eta handik atera behar du. Horretarako, ematen zaizkien pistak jarraituz, kodeak deszi-



Igor Lanz escape roomeko maiordomoa izanen da, partaideei ongi etorria egingo diena.

fratu beharko dituzte. Asko pentsatu beharko dute, adostu, erabakiak hartu...

## 3 Zuen Escape Roometan gai ezberdinak jorratzen dituzue?

Bai. Badugu escape room ibiltari orokor bat, baina gero gai ezberdinetakoak lantzen ditugu. Izan daiteke Gau Beltzarako escape rooma, inauterietarako bat, edo Olaztin eskainiko duguna, berdintasuna lantzen duena.

## 4 Ordu bateko saio horren atzetik lan ordu asko daude.

Bai. Lehenik eta behin ikertze lana; ondoren escape roomean zein kontzeptu landu erabaki eta kontzeptu horiek kode batean bilakatu; gero hori guztia istorio batean kokatu, mundu berezi batean sartzeko. Eta mundu hori girotzeko erabiliko dituzun elementuak, altzariak, jantziak eta beste hautatu. Ildo honetan, ohiko escape roomak, toki finkoan daudenak, kanpotik monitorizaturik daude. Horrela, jendea galduta badago, pistak ematen dizkiete kanpotik. Gure escape roomak ibiltariak direnez, moztortu egiten gara eta istorioa azaltzen dugun pertsonaiak gara. Behar izanez gero, pista batzuk ematen dizkiegu parte hartzaileei.

## 5 Nola sortu zen Berdintasunaren aldeko escape rooma antolatzeko ideia?

Barañaingo Berdintasun Zerbitzutip proposatu ziguten. Oso polita gelditu zen, jendeari gustatu zitzaion.

## 6 Asteburuan Olaztiko Kultur Etxera ekarriko duzue, emakumeen indarkeriaren kontrako egunaren harira Mankomunitateak antolatu duen egitarauaren barruan.

Bai. Sakanako Berdintasun teknikariarekin bildu gara Sakanan berdintasunaren alde egiten ari diren lan guztiaren berri izateko, gero escape roomaren testuinguruan kokatzeko.

## 7 Nolako escape rooma izanen da? Zerbait aurreratu daiteke?

Zerbait aurreratu dezakegu baina spoilerrik egin gabe (kar, kar...). Istorioa etxe handi eta dotore batean hasten da. Gure asmoa da gure arbasoak, gure aittun-amiñak, herrietan nola bizi ziren irudikatzea. Testuinguru historikoa 2. Errepublikara garaian hasten da.

Escape roomeko etxekoandrea emakumeen eskubideen aldeko aktibista da, eta sufragio unibertsalaren aldeko borrokan parte hartuko du. Ni etxeko maiordomoa naiz; jendeari ongi etorria egingo diot, gure istorioa aurkezteko.

## 8 Historian atzera egingo da.

Bai, ideia da denboran zeharreko bidaia bat egitea. XX. mendeko 30. hamarkadan hasiko gara, eta orduan nola bizi ziren ikusiko dugu. Gero, beste garai eta leku batzuetan sartuko gara. 1923ko maisu-maistren kontratua eta emazte onaren dekalogo bezalako testuak dira parte hartzaileek deszifratu behar dituzten kodeen oinarria etorkizunera iritsi ahal izateko. Egungo momentura iritsiko gara: soldatarrakala, genero indarkeria, sare sozialak... halako kontzeptuak ikusiko dira. Finean, ikusiko dugu denboran asko egin dugula aurrera, baina oraindik errealitatea da denbora asko falta dela berdintasunera iristeko.

## 9 Pandemia dela eta, zer nolako neurriak hartu dituzue?

Taldeak pasa ahala gelak desinfektatzen ditugu eta maskara erabiltzea derrigorrezkoa da. Taldeak gehienez 8 pertsonakoak izanen dira.

## 10 Sakandarrak escape roomean aritzera animatuko ditugu.

Jakina, sakandarrak esperientzia ezberdin batean aritzera animatzen ditugu! Larunbat arratsaldea betea dago, baina larunbat goizean (10:30etik 15:00etara) eta igandean (10:30etik 15:00etara) jendeak izena eman dezake ([berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus)).

## 11 Helburua ongi pasatzea da.

Escape rooma jolas bat da, kasu honetan gai oso sakona duena, baina helburua ongi pasatzea da, gai hori lantzen dugun bitartean. Eta jendea oso gustura egoten da. Beraz, asteburuan Olaztin egongo gara sakandarren zain, dena prest. Gure etxe zaharretan barnertuko gara. Girotzea oso polita da, altzariak eta elementuak oso autentikoak direlako, eta jendeak eskertzen du. Oso pozik gaude escape room hau Sakanan aurkezteagatik. Ilusio guztia-ekin prestatu dugu eta harro antzetzeko dugu.

# BABESTU ZURE MARKAREKIN

Musuko eskaintza zabala.  
Modelo, kolore eta diseinu ezberdinak.  
Aukeratu zurea!

DISEINU GRAFIKOA  
WEB DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA

619 821 436  
info@gkomunikazioa.eus  
Foru plaza, 23-1. Altsasu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe